


## IRABAZI ITURRIAK

Gure irabazi iturriak leku ezberdinetatik jasotzen ditugu, egiten ditugun kudeaketengatik ez ezik, gure aholkularitza zerbitzuagatik ere.

Gure ikastetxean egindako inkesta baten arabera, ikasleen %61,8k gure zerbitzura joko luke.

Zure etorkizuneko ikasketen arloko kudeaketak profesional batzuen esku uzteko prest egongo zinateke?

157 erantzun



Gure enpresak jendeari laguntzen dion modura, egoitza, unibertsitate edo zentro ezberdinei laguntzen die. Hori dela eta, ikasketa eta bizitzeko zentroek diru kantitate bat irabazten dute guk bidaltzen diegun ikasle bakoitzeko. Beraz, laguntza horien truke, irabazien ehuneko bat ematen digute.

Modu desberdinetan dirua jasotzea onartzen dugu, baina batzuk aipatzearren hauek bururatzen zaizkigu: alde batetik, paypal moduan ordaindu daiteke, horrek eskaintzen duen abantailarik handienetakoa da berehalako transferentziak egin daitezkeela. Beste alde batetik, kreditu txartel batekin ordaindu daiteke, zerbitzu honek denda baten moduan funtzionatzen baitu. Azkenik, banku-transferentzia batekin ordaindu daiteke eta honek ez dakar komisorik saltzailearentzat.